

herrera-bidebieta

II. Mountain Bike ibilaldia Lau Haizetara

Areto Futbol txapelketak irekia du jadanik izen emate epea. Futbol talde bakoitzak 60.000 pezeta ordaindu beharko du eta gehienez 21 taldek parte hartu ahal izango dute. Partiduak larunbat arratsaldeetan jokatu dira Altzako Polikiroldegian, Herrerako frontoian eta Larratxoko Ikastetxe Publikoan. Izena Herrerako frontoian eman daiteke. 19.30etatik 20.30etara.

Axisklo atsedean taldeak urriaren 8an, larunbata, hasiko ditu bere neguko ekintzak. Parte hartu nahi izanez gero, hurbil zaitzete Olmos ibilbideko 12. zenbakira (Itzala).

Jose Elozegi ibilbidean farola falta salatu du Herri-Pe auzo elkarteak. Gaiztarrora joateko dagoen oinezkoentzako pasoen farolak jartzea eskatu du.


Lau Haizetara II. Mountain Bike ibilaldia ari da antolatzen Mendi-Zaleak elkarteak.

Irteera urriaren 23an egingo da eta San Luis plazatik aterako da goizeko 9.30etan. Hauteskunde autonomikoen egun berean izango denez, antolatzailerik jendearen parte hartzea aurretik konfirmatu nahi dute.

Guztira 21 kilometro egin behar dira: San Luis plazatik Ametzagainara, gero, Txoritokieta eta San Markosera eta ondoren Lau Haizetara, hemendik berriz San Luis plazara itzultzeko.

1.000 pezeta ordaindu behar dira izena ematearekin batera. Kaskoa beharrezkoa izango da federatu eta ez federatuentzat eta parte hartu ahal izateko 14 urtetik gora izan behar dira

Ibilaldi hau federazioaren egutegi ofizialean



Joan den urtean arrakasta handia izan zuen bizikleta ibilaldi honek eta aurten goan berriro ere errepikatzea espero dute antolatzailerik.

sartu da, beraz, antolatzailerik hornimendu zerbitzuak jarri behar izan ditu bidean zehar. Lehen hornimendu puntua Ametzagaina eta Txoritokieta bitarteko igieran ezarriko da eta bigarrena San Markos inguruan.

Honetaz gain mediku zerbitzua, dutxak eta aseguruia eskainiko dute antolatzailerik prezio

horren barruan.

Bestalde, partaideen artean mendi bizikleta bat eta txirrindularitzarako materiala zozketatuko da. Era berean partaide bakoitzak Mendi-Zaleak elkarteak banatutako kamiseta eskuratu ahal izango du.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

1994-95 Ikastaro Egitaraua Zubeldia Ikastegia

Zumardi Ibiltokia, 14 (Bidebieta - 1)
20016 DONOSTIA

Euskadi Etorbidea, 5 - Pral. C
20110 PASAIA - TRINTXERPE



IKASTAROAK

- 1- Hizkuntzak: euskara, ingelesa, frantsesa
- 2- Informatika
- 3- Mekanografia ordenagailuz
- 4- Kontabilitate eta merkatal gestio mekanizatua
- 5- Hardware-an teknika
- 6- Marketing eta salmentak
- 7- Laboral eta zerga gestioa Pymes-etan
- 8- Laguntza klaseak: OHO, ertaina, eta unibertsitatea
- 9- 25 urte baino gehiagokontzat unibertsitaterako sarrera
- 10- Klinika laguntzailea, geriatría laguntzailea
- 11- Elikagai manipulatzailerik
- 12- Dietetika eta nutrizioa

IKASKIDE AKADEMIA

Urrian kurtso hasiera

OHO/BBB/UBI/REM

Zubiaurre Pasealekua, 49 Tfnoa.: 320188

BASQUE HOTELA

eta

JATETXEA



64310 ASCAIN

Tfnoa.: 59 54 00 12

Fax.: 59 54 40 84



intxaurrondo

Tailerren bidez, denbora beteaz

bukatu dira oporrak eta kurtsoaren hasierako ikastaro, tailer eta bestelakoak martxan jarri dira. Aukera ugari eskaintzen zaizkie auzotarrei.

«Lagunak» etxeakoandre taldea

«Lagunak» etxeakoandre taldeak, urtero bezala, bere egitaraua kaleratu du. Hauek dira aurtengo ekintzak: gimnasia, judoa, arropa josi eta egitea, punto eta gantxiloa, saloi dantzak eta literatura. Ekintza hauetan edozein auzokidek har dezake parte. Hauetaz gain, psikologiako hitzaldi eta ikastaroak antolatuko dituzte urtean zehar. Honi buruzko informazio gehiago Gaztelu kaleko 19. zenbakian izango da.

Maria Auxiliadoraren deialdia

Eliza honek ere urtero-



Auzoan ikastaro, tailer eta kirol eskaintza badago nahi duenarentzat. Aukeraketa egin behar.

ko deialdia egin die auzotarrei. Bertako tailerrak berezi xamarrak dira, baldintza batzuk eskatzen baitituzte: 16 urte beteak izatea, langabezia egotea, ikasketak amaitu gabe izatea eta auzokoa izatea.

Aukera zabala eskaintzen dute: mekanika, elektrizitatea, aroztegia, automobilaren elektrizitatea, lorazaintza, arropa egitea eta artilezko jertseak egitea. Klaseak urritik aurrera hasiko dira Bosko-Zaleak elkarteko behe aldean.

Larrotxeneko ikastaroak

Kultur etxeak eskaintzen du aukera handiena. Denetik egin daiteke: gitarra, euskal dantzak, kermika, argazkilaritza, bertsolaritza... Auzokideek lehenasuna izango dute ekintza guztietan.

Ikastaro, tailer eta bestelakoez gain, kirol talde eta elkarteek ere auzokideak kirol munduan parte hartzera gonbidatzen dituzte.

Lau 1/erdikoa txapelketaren finalak

jokatu ziren pasa den ingandean, irailaren 25ean. Bi partiduetatik, jubencil mailak eskaini zuen ikusgarritasuna. Bergarako Muruamendiarazek ordu eta laurden behar izan zuten Usurbilko Matxain gainditzeko. Senior mailan berriz, partidu azkarra izan zen, Berako Perizena pilotariak eskua minduta zuen eta Artola suertatu zen irabazle kategorian honetan.

NAGORE IRASORZA (TFNOA.: 285749)

Loizi ELEKTRIZITATEA


Jose Maria Soroa, 5 behea / Tfnoa.: 279417

BITXITEGIA ERLOJUTEGIA

Tardaguila

Denda eta lantegia

Txofre, 4 • Tfnoa.: 278277



ULI ALDE
Euskaltegia

-ikas ezazu euskara grosen
- HABEK homologatua

Jose Maria Soroa, 10 • Tfnoa.: 28 13 69

Chetas

TAILA HANDIETAKO MODA

Kolon Pasealekua, 23 Tfnoa.: 29 27 20